

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### GAUBEAKO UDALA

#### Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga ordaindu behar dutenen 2024ko errolda jendaurrean eta kobratzeko moduan jartzea

Behin-behinekoz onetsi delarik Gaubeako udalerriko trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga 2024an ordaindu behar dutenen errolda, espedientea hamabost egun baliodunez egongo da jendaurrean udal idazkaritzan, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodun aurrera, aztertu eta egoki jotzen diren erreklamazioak aurkez daitezten.

Erreklamaziorik aurkezten ez bada, espedientea behin betiko onetsizat joko da.

Borondatezko aldiko dirubilketa 2024ko ekainaren 1etik uztailaren 31ra artekoa izango da, egun biak barne.

Zergaren ordainketa helbideratuta dutenei 2024ko ekainaren 30ean kobratuko zaie.

Ordainketa inongo banketxe edo aurrezki kutxatan helbideratu ez duten zergapekoek udal bulegoetan ordaindu beharko dute, borondatezko aldian.

Bankuetan helbideratutako ordainketak: udalak izapidetuko ditu. Zergadunei gogorarazten zaie ordainketen banku helbideratzeen altak edo aldaketak Gaubeako Udalean izapidetu behar direla.

Borondatezko aldiko dirubilketa aldia amaitu ondoren, ordaindu gabeko kuotak premia-menduko betearazte bidean sartuko dira, eta legez ezarritako errekarquak eta, hala badagokio, berandutze interesak eta kostuak sortuko dituzte.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Gaubea, 2024ko apirilaren 26a

*Alkate-lehendakaria*

**GORKA SALAZAR SENSO**